

IL AZALPEN PROBA • <i>Piztiaren begiak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ordu bietan autoa hartu eta Arabara abiatu zen. Aurrez aurre mintzatuta informazio askoz baliotsuagoa ateratzen zitzaion jendeari telefonoz baino. Bidenabar, bidaia baliatuko zuen beste bisita bat egiteko Riviera Club-era. Bazitekeen Milenak beste oroigarri bat behar izatea ahoa itxita edukitzeko. Eta, azken batean, ez zuen hainbesteko presarik. Xantaiagileak ostiralera arteko epea emana zion.

Oka jatetxeko edalontzi lausoei eta pintxo koipetsuei erreparatuta, Dasilvak lokalaren hondorantz jarraitu zuen ezer eskatu gabe.

Morroi bakarra zegoen mahaietan eserita. Gizonak kafe kikara batetik begiak jaso eta Dasilvarengan josi zituen. Baiezko mutu bat egin zuen.

—Sordo nauzu –Dasilvak haren bostekoa estutu zuen. Sordok esertzeko keinu bat egin zion. Gris koloreko gizona zen: ilea, aurpegia, begiak... kolorgeak ziren, bizitzaren higadurak margulduta bezala. Gizon haren hazpegiak oroimenetik irristatuko ziren arrastorik utzi gabe—. Ez duzu ezer hartuko?

IL AZALPEN PROBA • <i>Piztiaren begiak</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Ea informazio gehiago aurkitzen dugun.

“Dasilva” eta “droga” hitzak sartu zituen Mirenek bilatzailean. Ez zuten emaitza aipagarriarik aurkitu. “Iruñeko polizia etxea” eta “droga” hitzak sartuta hainbat emaitza lortu zituzten, gehienak droga trafikatzailen atxiloketekin lotuta. Artikuluak dataren arabera ordenatuta, 2000. urtekoak bilatu zituzten. Jonek haietako bat seinalatu zuen. Albiste laburra zen, Nafarroako egunkari batek argitaratua.

Hamar kilo kokaina desagertu dira

Iruñeko Polizia Etxean

Polizia nazionalaren Barne Ikerketarako Saila lanetan ari da Iruñeko Polizia Etxetik desagerturiko drogaren afera argitzeko. Joan den udazkenean Drogaren aurkako brigadako agenteek hamar kilo kokaina atzeman zituzten trafikatzaille kolonbiarren aurkako operazio batean.